

Erref.- FMR / Legelari aholkularia

**NIK, NEREA URIEN AZPITARTE, BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU
ERAKUNDEAREN GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIAK, HONAKO HAU**

ZIURTATZEN DUT:

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzarrak 2020ko martxoaren 7an eginiko ezohiko bileran (1/20 akta) Presidenteak proposatutako honako Erabaki bakar hau onetsi zuen:

**LANGILEAK KONTRATATZEKO DEIAK FORMALIZATZEKO, KORONABIRUS (COVID-19)
KASUAK AGERTZEAK ERAGINDAKO OSASUN-KRISIA DELA ETA LAN-POLTSAK
KUDEATZEKO IRIZPIDEEN APLIKAZIOA ALDI BATERAKO ETETEA.**

«**Lehenengoa.**»- Salbuespen gisa eta behin-behinekoz, lan-kontratueterako deiak asistentzia-zentroen arabera diskriminatzea. Ondorioz, zerrendak zerbitzuak ematen ari diren ordeko langileen lantokien arabera eratuko dira, eta hortik aurrera egiten diren deiak zentro horietarako egingo dira, aldaketarik gabe. Antzera jokatuko da kontratatu berriekin; lehenengoan deitu zaien lantoki jakin horretarako kontratatuko dira aurrerantzean, eta irizpide bakarra izango da deien ausazkotasun berezia. Hau da, orain ordeko direnei gaur egun lanean ari diren lantokietarako deituko zaie aurrerantzean, eta, kontratu berria egiten zaienen kasuan, joan diren lantoki horretan lan egiteko kontratatuko dira aurrerantzean.

Ilido beretik, ezin izango dira egin plaza hutsak betetzeko bitarteko lan-kontratuak edo antzekoak, eta, haien orde, behin-behinekoz, zeregin-pilaketako kontratuak egingo dira legez ezarritako gehieneko eperako (sei -6- hilabete).

Ume eta Nerabeentzako Zerbitzuen Dibisioaren arloan oraingoz ez dira ezarriko murrizketa hauek, baina aurrerago erabaki ahal izango da ezartzea.

Bigarrena.- Lan-poltsak Kudeatzeko Irizpideak dokumentuan ezarritakoaren indarraldia etetea, lan-poltsen aurrentasun-irizpidearena izan ezik. Etetea osasun-alertak dirauen bitartean mantenduko da.

Hirugarrena.- Gerente andreari ahalmena ematea akordio hau behar bezala betearazteko beharrezkoak diren neurri guztiak har ditzan eta, bereziki, neurri horiek Ume eta Nerabeentzako Zerbitzuen Dibisioan ezar ditzan hala behar bada gaixotasunaren bilakaeraren ondorioz.



Laugarrena.- Erabaki hau behean agertzen den datan jarriko da indarrean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta GUFEn iragarki-oholean eta web-orrian noiz argitaratzen den aintzat hartu gabe.»

Eta hala jasota gera dadin, erabakitakoa betetzeko, ziurtagiri hau egin dut, Bilbon, bi mila eta hogeiko martxoaren zazpian.

GUFE-REN GOBERNU BATZORDEKO
IDAZKARIA

Sin.: Nerea Urien Azpitarte